

## FUNTSEZKO - ELKARTEAK

Gure enpresak elkarte eta pertsona askori eskatu behar izango dio laguntza, izan ere guk ez ditugu produktu hau ekoizteko beharrezkoak diren ezagutzak. Produktua diseinatzeko ingeniari bati laguntza eskatuko diogu, produktuaren ideia garatzeko eta prototipoak egiteko. Diseinatzaile bat ere beharko dugu, aterkinaren diseinu erakargarriak egin ditzan. Kolore edo irudi ezberdinak dituzten aterkinak diseinatuko ditu, horrela bezeroek aterkin aukera anitza izango dute eta gehien gustatzen zaiena hartuko dute.

Ekoizpen faserako ez dugu elkarte baten laguntza beharko. Beharbada, ekoizpena aurrera eramango den lantegiko mantentze-lanak eta garbiketa lanak aurrera eramango dituen elkarte edo pertsonaren baten laguntza beharko dugu.

Azkenik, aterkinak saltzerakoan, denda askorekin egin beharko ditugu itunak, izan ere, dendetan euritakoak saltzen baditugu gehiago salduko dugu, bezero potentzialek fisikoki ikusi ahal izango baitute produktua. Bestetik, internet bidez saltzen baditugu produktuak, internet bidez erosten diren produktuen banaketa egiten duten enpresaren baten laguntza beharko dugu, Seur, DHL...

